

INTERACCIONES:

ERronkak, desadostasunak, topaketak eta erreakzioak

Jardunaldi Profesionalak

Azaroak 24 eta 25 • Montehermoso Kulturune

Izen-ematea: intactofestival@gmail.com | Leku kopuru mugatua

2017an antolaturiko jardunaldien dinamizatzaile Fernando García esaten zuen bezala: "kultur kudeaketa ez da saiatzeko soilik proiektuak osatzen, baizik eta elkarrekintzak (ekintzak eta erreakzioak) proposatzen (eskura jartzen) ere, hainbat eta kualitatiboagoak baitira, potentzialki zenbat eta

elkarreragileagoak izan". Elkarrekintza ideia hori abiaburu harturik (testuinguru sozial, politiko eta kultural konplexuaren baitan), proposatzen dugu kultur ekosistema osatzen duten gorputz guztien premia eta egoerei erantzuna emateko gauza izango diren egituraketa posibleak jorratzea. Lau

begiradaren bidez egingo dugu, tokian tokikitik nazioartekora eginez, estrategiak irudikatzen aukera eman diezaguten, elkarrekin harreman marko eta eredu irekiak, lankidetzazkoak eta eratzukideak eraikitzen. Jardunaldiak inTACTO Jaialdiak antolatu ditu Montehermoso Kulturunearekin elkarlanean,

gogoetarako eta jakintza nahiz esperientziak trukatzeko harreman-gune bat sortze aldera, eta horren bidez, kultur ekimen garaikideen ezaugarri diren joerak eta egiteko moduak kultur kudeaketaren eta politikaren ikuspegitik esploratzeko.

PROGRAMA

azaroak 24, larunbata

10:00 - 10:15

Ongietorria eta aurkezpena

10:15 - 11:15

"¿Horizontalidad(es), Hibridación(es), Transversalidad(es) desde lo público?"

Fernando Pérez. *Azkuna Zentroa, Alhóndiga Bilbaoko zuzendari nagusia.*

Hizpide izango dugu nola gauzatu daitezkeen arlo publikotik zeharkakotasuna, horizontaltasuna eta hibridazioa, ideia, planteamendu eta formatu artistikoen arteko erlazioaren bitartez eta sustapen partekatuko eredu baten barruan. Azkuna Zentroak, gizarte eta kultura garaikidearen zentroa den aldetik, hainbat

diziplinatako pertsonekin lantzen du programazioa, publiko komunitateen partaidetza aktiboa ahalbidetzen duten proposamenak aintzat hartuz eta aberastuz. Erroka da kultur eta arte programazioa eta kudeaketa estratu gehiagotan planteatzea, jasangarriagoa eta anitzagoa izan dadin eta eragin hibridoagoak har ditzan.

11:15 - 12:15

"Realidades situadas. La gestión de las artes vivas en México: programación, producción, circulación y consumo"

Lourdes González. *Kultura-kudeatzailea eta, 2016-2018an, Guadalajara Mexikoko Kultura Zuzendaritzako Espazio Eszenikoen Burua.*

Mexikoko arte bizien sormen prozesuekin lotura duten alderdi batzuk izanen ditugu aztergai, eta era berean, lotura eta sare

eredurik ohikoenak, artisten zirkulaziorako adibideak emanda emanaldien aurkezpenaz harago.

12:15 - 12:45 Pausaldia kafea

12:45 - 14:00 Eztabaida irekia hizlarien eta entzuleen artean

azaroak 25, igandea

10:00 - 11:00

"Ese espacio entre"

Caterina Varela. *TRCDanza Koordinatzailea (A Coruña).*

Rosalía de Castro Antzokiko "Programación Expandida TRCDanza" proiektuaren baitan, inspirazio-eragilea gerta baitaiteke. Antzoki publiko baten eta bitartekaritza-ekimen independente baten arteko ituna da, betiere bitartekaritza honela ulertuta, hots, instituzioaren eta artistaren artean dagoen espazio hori, edo artistaren eta publikoen

arte dagoena, edo jendearen eta antzerkiaren arte dagoena. Bada, hori oso lagungarria izaten ari da, dantza-ziklo batek hirian isurtzen dituen potentzia guztiak ustiatzeko. Zeren, bitartekaritza mintzo garenean, azken finean itzulpenaz eta elkarrizketaz mintzo baikara, testuingurunearekin eragiten eta elkarreragiten duten zubiez, alegia.

11:15 - 12:15

"Derechos culturales, participación y nuevas institucionalidades: el caso de Harinera ZGZ"

Diego Garulo. *Kultura-kudeatzailea, HarineraZGZko koordinatzailea.*

Instituzio publikoko eredu klasikoak zaharkituak gelditu direla begi-bistakoa dirudien testuinguruan, eta halaber, ezinbestekoa denean partaidetzari irekita dauden kudeaketa-

formula berriak esploratzea, Harinera ZGZ espazioak udalaren kultur ekipamendu baten kudeaketa partekatua (publiko-herritarra) eskaintzen du; egiazko esperientzia bat da.

12:15 - 12:45 Pausaldia kafea

12:45 - 14:00 Eztabaida irekia hizlarien eta entzuleen artean

Fernando Pérez

*Azkuna Zentroa, Alhóndiga
Bilbaoko zuzendari nagusia.*

Euskal Filologian lizentziaduna. Europako Politika Kulturaletako graduondoa egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean, bai eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko eta ICCMUko Kultura, Musika, Antzerkia eta Dantza kudeatzeko masterra ere. ILPVAM, International Leadership Program in Visual Arts Management. Lan sakon eta oparoa egin du sormenezko kultur kudeaketan hamaika proiektu publiko eta pribatutan, eta aditua da musika, antzerki, dantza eta arte plastikoetako kultur proiektuen antolaketan, koordinazioan eta garapenean. BAD edo Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Zuzendari Artistikoa izan da, Kaleko Arteen Jaialdiko, eta koordinatzailea Bilboko Udaleko Baliabide Eszenikoen Zentroan, Egoitza Artistikoen programan eta Zinema Fantastikoaren Jaialdiaren programazioan. Era berean, hainbat argitalpenen koordinazioaz arduratu da. Sormenezko programazioari buruzko mintegiak koordinatzeaz gain, hainbat aldizkari espezializatutan argitaratu ditu artikuluak, eta diru-laguntzen eta egoitza artistikoen deialdietan parte hartu du. Era berean, kultur kudeaketaren inguruko hainbat argitalpenetan aritu da, sorkuntza garaikidearen inguruko zenbait taldetako kide da, eta hizlari izan da hainbat arte biltzar eta plataformatan.

Lourdes González

*Komunikazioan maistra
da, Zientzian eta Kulturaren
espezializatua.*

Psikologian lizentziaduna, diplomaduna da, halaber, kultur kudeaketan eta funtsen lorpenean. Ekoizle, irakasle, zuzendari, ikerle eta kultur kudeatzailea, arte eszenikoetan espezializatua. Guadalajarako Kultura Zuzendaritza Espazio Eszenikoen burua (2016-2018), Torres Bodet antzokiko zuzendaria (2015-2017); Laboratorio de Arte Variedadesko zuzendaria (LARVA), non, espazioa taxutzerakoan, bereziki ahalegindu baitzen dibertsitate kontuak nabarmentzen, dibertsitate estetikoaz harago. 2014tik hona, Sormena eta Garapen Artistikoa Sustatzeko Programaren (PECDA) plangintza batzordeko kide da antzerki arloan. Gaur egun, aholkularia da "Changing Places, Espacios Revelados, México 2019" proiektuan, hots, Siemens Fundazioaren ekimen bat Goethe Institutuarekin elkarlanean, Guadalajara hirian abandonaturik dauden espazioetan esku hartzeko eta leku horiek berpiztu, erakutsi eta berreskuratzeko; gero, tokiko, estatuko eta nazioarteko artistak gonbidatuko dituzte diziplinarteko taldetan lan egitera, hirian bizitzeko nahiz ondarea erreskatatzeko beste modu posible batzuk imajinatze aldera.

Caterina Varela

*Dantzaria, sortzailea eta kultur
ekintzailea.*

Dantzan, arte grafikotetan eta ikus arteetan jaso du prestakuntza. La Macana dantza konpainiaren zuzendaria da Alexis Fernándezekin batera. Talde horrekin ondutako eszena-proiektu batzuek zabalkunde handia izan dute nazioartean. Colectivo RPMeko kidea da, Galiziako sorkuntza garaikidean ibilbide oparoa duten artistek osatua. Talde horrek garatutako proiektuek, gehienbat, arte biziak Galizian hobetzea dute xede. Taldearen lan-ildo nagusietako bat Residencias Paraíso programa da, hots, Galiziako hainbat espaziotan arte bizietarako egoitza artistikoak lantzeko programa. Halaber, Programación Expandida TRCDanza proiektuko koordinatzailea da; kultur bitartekaritzako ekimen bat da, A Coruña-ko Rosalía de Castro Antzokiko urteroko dantza-programari lotua. Proiektu horren bidez, era praktikoa aplikatzen dute Programazio Hedatua kontzeptua, 2012tik hiriko antzoki publiko hori aktibatzen duen dantza-programara egokitua..

Diego Garulo

*Kultur kudeatzailea.
"Zaragoza Cultural" izeneko
Udal Elkartearen Kultura
Komunitariorako eta Proiektu
Berrietarako Unitate Teknikoa,
Zaragozako Udalarena.*

Antzerki amateurretik abiatuta hasi zen kultur kudeaketaren arloan lantzen, arte eszenikoetarako El Globo Teatro elkarte-espazio autokudeatua sortuz. Beste ofizio batzuen artean, argiztapen teknikaria izan da hainbat antzerki-talderentzat; kultur ekoizpen eta programaziorako teknikaria; Zaragoza Europako Kultur Hiriburua 2016 izateko hautagaitzako prestaketa-taldekidea, ZaragozaCultura 2020 plan zuzentzaileko kidea, eta Europako pare bat lankidetzako proiektutako koordinatzailea: Dance Channels ta Recover the Streets. Bestalde, Kultura eta Herritarrak III. Topaketako batzorde akademikoan izan zen partaide, eta PROCURAKO zuzendaritza batzordeko kidea da (Kulturako Profesionalen Elkartea Aragoi). Erabilera proiektua 2013an taxutu zuenetik, Harinera ZGZ proiektuaren koordinatzailea da Zaragozako Udalean. Hori lantegi zahar bat zen, eta kultura komunitariorako espazio gisa berreskuratu da; zehazki, partaidetza aktiboa, ahalduntzea eta hiriaren eraldakuntza bultzatzen dituzte sormenaren bidez, eta udalaren, auzokide-sarearen eta kultur gileen artean kudeatzen da.